BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

1159

EBAZPENA, 2019ko otsailaren 12koa, Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordearena, Arrantza eta Akuikulturako zuzendariarena eta Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariarena, zeinarekin argitara ematen baitira 2018ko ekitaldian emandako dirulaguntzen onuradunen zerrendak, EAEko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako enpresa- eta lanbide-elkarte zein federazioentzako laguntzak emateko erregimena arautzen duen azaroaren 15eko 233/2011 Dekretuan ezarritako markoaren barruan («Elkarteak» Programa).

Azaroaren 15eko 233/2011 Dekretuak («Elkarteak» Programa) honako helburu hau du: EAEko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako enpresa- eta lanbide-elkarte zein federazioentzako laguntzak emateko erregimena arautzea.

Azaroaren 15eko 233/2011 Dekretuko («Elkarteak» Programa) 9. artikuluko 4. paragrafoan honako hau aurreikusten da: aurreikusitako laguntzen gaineko ebazpena banan-banan jakinaraztea eragotzi gabe, dagokion arloko zuzendariaren ebazpen bidez EHAAn argitaratuko dira dekretu honen babesean emandako dirulaguntzak eta onuradunak.

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuaren 2018ko ekainaren 27ko Aginduaren bitartez iragarri zen EAEko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako enpresa- eta lanbide-elkarte zein federazioentzako laguntzak 2018an emateko deialdia, azaroaren 15eko 233/2011 Dekretuaren («Elkarteak» Programa) markoaren barruan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Ogasunaren Antolarauen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49. artikuluan honako hau ezartzen da: dirulaguntzen onuradunak argitara emateko obligazioa.

Ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUGU:

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuaren 2018ko ekainaren 27ko Aginduan oinarriturik, 2018ko ekitaldian zehar emandako dirulaguntzen onuradunen zerrenda argitara ematea, jende oro jakinaren gainean izan dadin. 2018ko ekainaren 27ko agindu horren bitartez iragarri zen 2018an EAEko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako enpresa- eta lanbide-elkarte zein federazioentzako laguntzak emateko deialdia, azaroaren 15eko 233/2011 Dekretuaren («Elkarteak» Programa) markoaren barruan. Aipatutako zerrenda ebazpen honetako eranskinean jasotzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 12a.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaria ez dagoenez, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 74/2017 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriaren arabera.

Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordea,
BITTOR OROZ IZAGIRRE.

Arrantza eta Akuikulturako zuzendaria,
LEANDRO AZCUE MUGICA.

Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendaria,
PELI MANTEROLA ARTETA.

ERANSKINA

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2018ko ekainaren 27ko Aginduaren bitartez egindako deialdiaren barruan («Elkarteak» programa), 2018ko ekitaldian emandako diruzko laguntzak

Elkarte eta federazio profesionalak eta enpresarialak.

Nekazaritzaren sektorea

Sozietatearen izena	Laguntzaren zenbatekoa (eurotan)
Asociacion de Apicultores de Bizkaia - Bizkaiko Erlazainen Elkartea	2.065,33
Asociacion criadores caballo deporte Euskadi	5.779,40
Asociacion ganadera Azpigarri	17.765,00
Larsabi	1.667,28
Egaee - Euskadiko ganadu ekoizleen elkartea	4.233,75
Federacion Asoc. criadores ganado - Euskadiko arrazako behi hazleen federakuntza - Txaroles - Etxafe	4.345,00
Ehkolektiboa elkartea	4.020,90
Asociacion Independiente de remolacheros Alaveses - Arabako Erremolatxako Langileen Elkarte Independentea - Aira	18.460,00
Asociacion Deba Garaia - Debagoienako Abeltzainen Elkartea - «Degabel»	2.390,61
Asociacion de Mujeres y familias del ambito rural – Landa-eremuko emakumeen eta familien elkartea - Land@ XXI	17.222,40
Federacion de cunicultores de Euskadi - Euskal Herriko Untxizainen Federazioa	46.050,30

Arrantzaren sektorea

Sozietatearen izena	Laguntzaren zenbatekoa (eurotan)
Anabac	9.180,00
Asociacion comercializadores pescado - Euskadiko Arrain Salerosleen Federazioa - Ondarroa	18.144,57
Garela	1.190,00
Optuc	14.850,00
Federacion Cofradias Pescadores Bizkaia - Bizkaiko arrantzaleen kofradia	58.240,00
Federacion Cofradias Pescadores Gipuzkoa – Gipuzkoako arrantzaleen kofradia	28.000,00
Oppao	49.210,00
Asociacion de compradores minoristas de pescado y congelado – Arrainen eta izoztuen txikizkarien elkartea	154,75

Elikaduraren sektorea

Sozietatearen izena	Laguntzaren zenbatekoa (eurotan)
Agipan	2.043,35
Agrupación carnicerias de Gipuzkoa – Gipuzkoako harategien elkartea	2.346,41
Arotzgi	10.219,46
Gilbe - Gipuzkoako lorazale eta barazkigileen elkartea	18.140,00
Asociación de piensos compuestos – Pentsu konposatuen elkartea - «Epea»	9.189,07
Asociación de Panaderias de Álava - Arabako Okindegien elkartea	5.004,72
Asociacion de empresas del sector aserrio del Pais Vasco – Euskadiko zerratze-sektoreko enpresen elkartea	1.425,58
Asoc Fabricantes embalajes industriales P.V. – Euskadiko enbalaje industrialen fabrikatzaileen elkartea (Afei)	931,68
Asoc. provincial de Fabricantes y exp. de pan de Bizkaia - Bizkaiako Okindegien elkartea	15.759,90
Gremio Artesanos Confiteria - Pasteleria de Bizkaia - Bizkaiko Gozogileen alkartasuna	7.902,77
Federación de Cooperativas agrarias de Euskadi – Euskadiko nekazaritza-kooperatiben federazioa	21.590,00
Asoc Fabricantes conservas y salazones de pescados de Vizcaya – Bizkaiko arrain-kontserba eta –gazituen fabrikatzaileen elkartea	5.442,11